


MATEMATIKARAKO MATERIALA

Aurreko zenbakian eman genion hasiera sail honi eta han adierazi genuen bezala gure asmoa Matematikaren irakaskintzan erabil daitekeen zenbait material azaltzea da.

Oraingo honetan beste bi material mota plazaratu nahi genuke zuen aurrera.

A / GEOPLANOA

Aldameneko marrazki honetan daukazu adierazita geoplanoa. Egur puska bat eta bederatzita dira geoplanoa eratzeko behar den material bakarra; oso material arrunta da, eta hurrek ere inolako laguntzarik gabe egin dezakete.



Geoplanoa adierazteko, ondorengo dibujoa hau erabiliko dugu.



Nola erabili?

Goma baten bidez poligono mota desberdin asko egin daiteke geoplano batetan.



Hiruki edo
triangelua



Lauki edo
kuadrilateroa



Pentagonoa



Hexagonoa



Heptagonoa

eta abar

Poligonoak esplikatzean, bi izaten dira arruntki egindako akatsak:

- a- Poligono erregularrak, irregularrak baino lehenago esplikatzea.
- b- soil-soilik irudiz aritzea.

Geoplanoaren bidez bi oztupo horik gaindi ditzakegu.

••• a — Poligono edozein bat egin dezala proposatzen badiogu haurrari, zihur asko irregular bat egingo du; gure lana, poligono horietarik batzuk erregularrak direla argitzea izango da.

IDEIA OROKORRA POLIGONOA


ideia partikularra — poligono erregularra

P — — poligonoak

P_E — — poligono erregularrak


Idea orokorrek abstrakzio gutxiago eskatzen bait dute, partikularrak baino lehenago esplikatu behar dira.

P_E multzoaren osagarria (komplementaria), poligono irregularren multzoa da.



••• b — Puntu honek ez du esplikazio gehiagoren beharrik, geoplanoa bera materialakoa bait da.


• Geoplanoa, plastika eta matematika elkartzeko zubi bat bezala erabili daitezkeen gauza bat da.



Hona hemen, puntu guztiak beste guztiekin elkartzean agertzen den irudia.

Eta hala azaltzen diren hutsuneak oso egokiak dira margotzeko.


Adibidea:




Eta irudimenak bete behar duen abar luze bat.

- Simetria lantzeko ere egokia dugu geoplanoa.

puntuarekiko simetria



ardatzarekiko simetria



Lantxo honetan geoplanoak dituen posibilitate guztietatik apurtxo bat besterik ez dugu aipatu; horixe ere da gure asmoa, zeuk inbestigatzeko erabil dezakezun material bat azaltzea.

Lana zurea da hemendik aurrera; saia zaitetz.



FOTOCOPISTERIA
Avda. del Ejercito, 18 (Galeria)
tl: 4478577
Bertendona (frente a correos)
(Próxima inauguración)